

## Hernani Herriarteko pelota finalean, azken 6 urteetan 4garren aldiz

■ Hernaniarrek 2-1 irabazi zien berriz ere donostiarrei, latz sufrituta, 22-21, 13-22 eta 22-17 ■ Finala Azkoitiaren kontra, datorren igandean Atano III-nean ■ Kirolegiko frontoia bete egin zen pelotariak animatzeko.

HERNANIK aurten ere Herriarteko Gipuzkoako finala jokatu du, semifinaletan Donostia eliminatuta. Aurtengoarekin azken 6 urteetan jokatu duten 4garren finala izango, eta horixe azpimarratzen zuten ostiralean Pelota Saileko arduradunek.

Finala, ordea, askok uste baino dezente gehiago kostata eta sufrituta etorri da. Hernanik 2-1 irabazi zuen Donostian. Tanteoa, ordea, haien aldekoa zen eta ikusten zen Hernanin ere bi partidu irabazi egin beharko zirela finalean sartzeko. Ostiralean jokatu ziren bueltako partiduak eta hasieratik gauzak beltz jartzen hasi ziren hernaniarrentzat. Aizpitarte eta Gorrotxategi kadeteek ezin zituzten donostiarrak mendean hartu, eta ez mendean hartzeaz gain, 14-19 eta 19-21 joan ziren galtzen. Baina, azkenean, kadeteek Hernanin utzi zuten aurreneko tantoa.

Jubeniletan, Arrietak eta



Erroizenea (bizkarrez erdian) eta Gorrotxategi besarkatzen finalera sartzean.

Mikel Otegi partidu txukuna jokatu zuten, baina, donostiarrak gehiago izan ziren. Hernaniarrek oso tanto politak egin zituzten, baina, Donostia nagusitu zen 22-13.

Jubenilak galduta eta tanteoa donostiaren alde, Erroizeneak eta Mendizabalek irabazi egin beharra zeukaten

eta ez zuten huts egin. Hori bai, partidu serioa, gogorra eta luzea (orduterdi pasea) jokatu irabazi zieten Donostiako pareja ederrari. 22-17 bukatu zen partidua.

### Faborito garbirik ez

Datorren igandeko finalari begira, esan liteke ez dagoela

faborito garbirik. Azkoitiako oso talde fuertea du eta batez ere kadete bat du apartatzekoa. Hernanik ere sekulako txapelketa egin du, erakutsi du zenbat jokatu lezakeen.

Igandera arte behintzat, Hernani da Gipuzkoako txapeladuna joan den urtean Lasarteri irabazita. □

### ■ TXIRRINDULARITZA

#### San Juan Klasika gaur

JOCC Elkarteak antolatuta 56garren San Juan txirrindulari Klasika jokatu da gaur Hernanin. 23 urtez azpiko txirrindulari afizionatuek korritzen dute eta elite mailako karrera da. Goizeko 10:00etan aterako da proba Urbietakaletik, eta denera 20 ekipotik gora izango dira aterean, besteak beste: Ulma-Cegasa, Debarrena, Baque Labarca2, Orbea-Olarra, Caja Rural eta Telco'm.

#### Bi aldiz Hernanitik

Txirrindulariek 122 km egingo dituzte gaur, eta helmugara iritsi aurretik bi aldiz pasako dira Urbietakaletik: 12:00ak aldera aurrena, Sorgintxulotik sartuta eta 12:30ak aldera gero, Martindegitik barrena Zinkoenea-Cuesta dela muerte-Galarreta-Sorgintxulo eta Juan de Urbietakale. Karrera, 13:00etan bukatzea espero da. □

### Tonbola solidarioa Thailandiaren alde

HERNANIKO talde batek tonbola jarriko du Tilosetan (Karitasekoa izaten zen horretan) Thailandiaren alde. Tonbolan ateratako dirua Thailandiako Baan Marina fundaziora bidaliko dute, bere proiektuetan laguntzeko. Proiektuetako bat da Thailandiako tributetako "emakumeei pertsona kalitatea eta jostun profesioa eskaintzea". Tonbola astearte eta asteazkenean egongo da zabalik: 11:00-14:00/17:00-21:00. □

### ■ BOLA

#### Hernaniko txapelketa

JUBILATU Egoitzan bola tiraldia izango da gaur, Hernaniko Txapelketarako balioko duena. □

### ■ TIROA

#### Tiropitxoa Jauregin

TXANTXANGORRIK antolatuta, tiropitxoi lehiaketa gaur Jauregin, 10:00etan. □

## Bildu Hernanik ez du EA-EAJ eta EB-IUn borondaterik ikusten plataformak hauteskundeetan lortutako botoei ordezkari emateko



Bildu Hernanik prentsaurrekoa eman zuen ostiralean.

BILDU Hernanik borondate falta ikusten du batez ere EA-EAJ eta EBn plataformak lortutako babesari ordezkari emateko. Bildu Hernanik ostiralean esan zuen, bere aldetik emanda daudela akordio batera iristeko pausoak, eta orain pelota EA-EAJ eta EBren teilatuan dagoela. EA-EAJri buruz Bildu Hernanik azaldu du *Hitzorduak* taldeak deitutako bileran koalizioa ez zela izan. Plataformaren esanetan, joan ezina aurretik jakinarazi zuen koalizioak. Horretaz gain, ordea, beste bilera bat eskatu zien plataformak, baina, bilera hori ez da egin. Bildu Hernaniko ordezkariak aipatu dute zinegotzi bulegoetako sarrailak aldatuta aurkitu dituztela, "guri giltzarik eskatu ere egin gabe". Mertxe Etxeberriak esan du EA-EAJ eta EBk ez dutela izan ezta UPNko zinegotziek Irurtzunen izan duten etika politikorik ere. Lanean jarraitzeko asmoaz gain, Bildu Hernanik esan du ekitaldi ofizial guztietan egongo direla, jasotako botoen ordezkarietan. □

HERNANI

**KixKal**  
Taberna  
naqusia 15

Egunero pintxo aukera ederra. Asteburuetan pintxo beroak ere bai.

**IRUNE**  
Estetika

- Depilazioak
- Betileak
- Masajeak
- Aurpegi tratamenduak

San Joan zoriontsuak opa dizkizuegu

- Makilajea
- Manikura
- Pedikura
- Solariuma

Kardaberaz 51, behea  
Tel.: 943 55 71 13

Jantzi eta osagarriak

**laket**

Kardaberaz, 17 • Tel.: 943 330 679  
20120 HERNANI

San Joan jai zoriontsuak opa dizkizuegu

**BEGIRA OPTIKA**

Ondo pasa San Joan jaiak!

URBIETA 8, TEL.: 943 55 41 54 HERNANI

## Mateo eta Urdangarin atleta osoenak

■ Kirolariek bizikletan, korrika eta zaku altxatzen ibili ziren Atleta Osoa proban.

ETXEBERRIKO Lagun Ar-teak antolatuta 31garren Atleta Osoa Saria jokatu zen atzo. Goizeko 10:00etan zen proba, baina, ordurako bero ez ezik sargori zen eta atletek gogotik izerditu zuten. Atleta Osoak hiru proba izaten ditu: bizikletan eta korrika herrian barrena eta zaku-jasotzea. Horiek hirurak aurrena Ismael Mateok eta Ixiar Urdangarin hernaniarrek egin zituzten denbora gutxienean. Gizonezkoetan, Felix Merino gelditu zen bigarren eta emakumezkoetan Izaskun Santana. Beteranoetan, Patxi Erroize-neak irabazi zuen eta ez zen emakumezkoen irabazlea. □



Atleta Osoa probako sarituak. Erdian Mateo eta Urdangarin.

## Odriozola eta Aublang palankariak txapelak eta Larburu hernaniarra aurrena beteranotan



Joseba Larburu atzo palanka tiratzen, Sagastialden.

HOGEITA bigarren Palankari txapelketa jokatu zen atzo Sagastialdeko atletismo pistan. Aitor Odriozolak eta Amaia Aublangek bota zuten palanka bide gehienez. Odriozolak 38,94 m bota zuen eta Aublangek 26,19 m. Gizonezko seniorretan, Jabier Kanejak egin zuen 36,24 m-kin eta Jose Luis Kanejak hirugarren 29,25 m-kin. Emakumezkoetan, Edurne Odriozolak 21,01 m botata lortu zuen bigarren postua. Palankari txapelketan Joseba Larburu izan zen hernaniar bakarra eta beteranotan irabazi egin zuen, 31,56 m tirata. □

## ■ HITZ BITAN



Herriko establezimenduetan bildu den dirua Olanari ematen.

### ✓ BERRIAK ELKARTEA

**800.000 pta Olanaren proiektuak laguntzeko.** Berriak Elkartek diru bilketa egin du Angel Olanari Etiopian egiten ari da lana bultzatzeko, misiolari hernaniarren eskariz. Azaroan, eltxetxoak jarri ziren herriko establezimenduetan, (Berriakekoetan zein besteetan) eta jendeak emandako laguntzarekin 5.000 euro osatu dira dagoeneko. Berriak elkartek azpimarratu du inizatiba ez dela hemen bukatzen, eta berri ere eltxetxoak jarriko direla. □



### ESKERTZA

Miguel Insausti Echeverria

*Gure atona mattia,  
izatez xamurra*

*Gorputzian kabitu eziñeko bihozdua,  
earra.*

*Utzi egin gattuzu, baña,  
zure indarrak gure artian dirau.*

*Muxu amaigabeak, matte horri.*

Eskerrak era batera edo bestera gurekin izan zareten guztioi.



### IRAGARKI MERKEAK

Emakume bat behar da adineko emakume bat zaintzeko. Interesatuak deitu telefono honetara: 943 33 29 11

### ZERBITZUAK

#### ☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 006666
- ▶ Jokalari anonimoak: 943 331103

#### ☎ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: Gomez Justel  
Kale Nagusia 14  
☎ 943 554892
- ▶ Gaez: Gil  
Lasarte. Nagusia 24  
☎ 943 361529

### LAN ESKAINTZA

Guarderia eta zentru publikoetako deialdiak laster

### HAURRAK ZAINTEKO PERTSONALA

Haurrak zaintzeko L.H.2/F.P.2 derrigorrezkoa

Informa zaitetz: 943 444 509



Zapa 8 - ☎ 943 33 15 06 -

# kutxak

# JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

Zuen zerbitzura izango gaituzue,  
ekainaren 23an Zinkoenean,  
eta 25ean Plaza Berrian.

Eta gau eta egun gure kutxa.net web orrialdean